

Julene Azpeitia

Ipuin Lehiaketa, 1987 eta 1988



AURKIBIDEA

HITZAURREA	2
Joan Antonio Aroma	
IPUINAK	
<hr/>	
ESKERRIK ASKO	4
Leire Griñon Balier	
IZURDE BATEN HISTORIA	7
Jaione Agirrezabal Morgaetxebarria	
ZUHAITZA	9
Iratxe Perez Barreña	
IZARREI BEGIRA	12
Ane Castillo Aranburu	

HITZAURREA

Soldaduzkatik etorri barria nintzen Julene Azpeitia ezagutu nuenean. Bere azken liburua prestatzen ari zen, —1974. urtean argitaratu zen ZUENTZAT— eta bere ipuin eskueskribatuak makinaz idatzita eraman nahi zituen argitaletxera, bere eskueskribuak ez zituen etxetik atera gura, noizbait horrelakoetan galduak bait zituen batzuk eta horrelaxe ezagutu nituen ZUENTZAT liburuan argitaratu zituen ipuin eta istorio guztiak.

Umeontzat bereziki, ZUENTZAT idatzi zuen bere azken liburua, ipuin sorta eder eta gozoz ornituta.

Idazkera argia zuen eta horrek asko errazten zuen lana, egun haietan askotan bildu ginan bere Juan de Itziarko etxean nire makinatze lanak irakurten eta zuzentzen. Bere idaz tankera errespetatzea eskatu zuen euskara batuaren burruka pil-pilean bizi genuen une hartan.

Lana ordaindu egin nahi zidan eta horrela egin ere, horrelako lanak ordaindu egin behar zirela esaten baitzuen.

Horrelaxe ba Udaletxeko Kultur Batzordean umeentzat ipuin sariketa bat antolatzea pentsatu genuenean, —1983. urtean txarto ez banago— Julene Azpeitia izena proposatu nuen eta ontzat hartu danok, zeren uste dut izen hobeagorik ezin geniola jarri, kontutan harturik Durangon bizi izan zela eta umeak izan zirela Julene Azpeitiaren euskalduntze helburua eta etorkizunerako esperantza, eta ni ere hortan nago.

Hor doazkizue beraz azken bi urteotako lehiaketan saritutako ipuinak. Ziur naiz atsegin handiz irakurriko dituzuela eta ziurrago oraindik egileek hartuko duten poztasunaz heuren ipuinak liburuxka honetan argitaratuak ikusteaz. Azaleko leihoa zabalik duzue, sar zaitezte barrura!

JOAN ANTONIO AROMA

Leire Griñon Balier

5. Maila

M^a Goretti Ikastetxea

ESKERRIK ASKO

Behin batean, Mikel izeneko mutiko bat, baserrian bizi zana, mendira joan zan ibilaldi bat egitera. Oso nekatuta egoenez etzun egin zan.

Izartu zanean erbi bat ikusi eban bera baino aurreratsua, negarrez, eta aurreratu egin zan.

Harri haundi bat eukan anka gainean. Mikelek harriari tira egin eutson, erbia besoetan hartu eta baserrira eroan eban.

Baserrian amak bronka itzela bota eutson Mikeli, baina honek ez eutson jaramonik egin.

Egun batzuk barru, erbia osatu zanean, benda kendu eta basora eroan eban, amak etxean eukitzen ez eutsolako izten. Baina Mikel egunero joaten zan erbiarekin basora jolastera.

Egun baten, basoan erbiarekin jolasten egoala, erreka andatik igaro ziran. Errekaren erdi inguruan urtxintxa bat ikusi eben eta berau ikusten gelditu ziran.

- Urtxintxa, nork erakutsi deustu igeri egiten? -esan eutson Mikelek piska bat lotsatuta berak ez ekielako igeri egiten-

- Nire lagunak eta ni kurtsilo batera joan ginan ikastera.

Urtxintxa atzerantz begira egoenez ez zan konturatu aurreratsua zuhaitz bat egoala errekan botata, baina Mikelek bizkor esan eutson:

- Kontuz urtxintxa, begiratu egizu aurrera.

Eta aurrera begiratu ebanean eta zuhaitza ikusi, atzerantza egin eban igeri. Errekatik urten eta hauxe diñotso Mikeli:

- Eskerrik asko mutiko, bizia zor deustut.

- Ez horregatik lagun!

- Zelan deitzen zara, mutiko?

- Ni Mikel naz. Egunero etortzen naz erbiarekin jolastera, zuk ere nahi dozu gurekin etorri?

- Bai motel, gustora gainera. Beno agur, joan egin behar naz, gaua laster helduko da eta. -esan eban urtxintxak.

Erbiari agur esanda Mikel pozik joan zan etxera lagun barri bat egin ebalako. Hurrengo arratsaldean hirurak elkartu ziran. Han ibili ziran bata bestearen atzetik, arrapatu guran. Azkenean nekatu egin ziran eta lurrean jarri. Bapatean tiroak entzun ziran.

- Gorde zaitetze, hil egingo zaitue eta. Arin. arin! -esan eban Mikelek, bere lagunak galtzeko gogorik ez eban eta. Gero, tiroak entzun eban lekura joan zan.

- Aizu, ez dozu pentsatzen animaliak zuk besteko arrazoia daukatela bizitzeko?

- Ba, ba ..., ba ... egia da.

- Joan zaitetz etxera eta inoiz ere ez zaitetz etorri baso honetara, eta gutxiago animaliak hiltera.

Mikelek bizia salbatu eutson txori bati. Txoria Mikelen andara etorri zan eta hauxe esan eutson:

- Zelan eskertuko deusut bizia? Eta zelan dozu izena?

- Ni Mikel naz eta ez deustazu bizia eskertu behar. -esan eban Mikelek.

- Urtxintxa!, Erbi!, zatozie!.

Eta etorri ziranean hauxe esan eutson txoriari:

- Begira, honeek nire lagunak dira, egunero etortzen naz basora heurekin jolastera. Gureko zeunke zuk ere gurekin jolastu?

- Ongi! -esan eban txoriak-

Baina egun baten, jolasten egon ziranean, Mikel erreka andatik igaro zan, laban egin eta uretara jausi zan.

- Lagundu mesedez, ito egin behar naz!

Orduan urtxintxak hauxe esan eban:

- Txori, joan zaitetz hegaz mendiaren puntaraino eta han dagozan urtxintxei esaiezu berehala etortzeko; eta zu, erbi, zoaz erreka amaierara eta esaiezu hango urtxintxei lehenbait lehen etortzeko.

Berehala etori ziran hamalau urtxintxa. Errekara salto egin eta Mikel atera egin eben. Mikelek bihots-bihotsez eskertu eutsen. Heurak esan eutsen berak ere bizia salbatu egin eutsela behin, eta lagunak laguntzeko dagozala. Urtxintxak Mikeli igeri egiten erakutsi eutson. Mikelek ez eutson amari egun hartan gertatutakoa kontatu, bestela amak ez eutson utziko eta lagunekaz basora jolastera joaten.

Jaione Agirrezabal Morgaetxebaria

6. Maila

Maiztegi Herri Eskola

IZURDE BATEN ISTORIA

Orain dela urte pilo bat zer gertatu zen itsasoko ur sakonetan kontatzera nator.

Egun eguzkitsu batetan izurde amak semetxo bat izan zuen. Izurde ama eta izurde aita oso pozik zeuden bere semetxoarekin. Arratsaldero itsasoko gauza zoragarriak ikustera joaten ziren.

Izurde semetxoa oraindik txikia zen eta ez zuten bakarrik uzten, zeren inguru hartan marrazo maltzur bat bizi zen. Marrazo hura, izurde semetxoa ikusi zuenean, beragana hurbildu zen jateko asmoz, baina gurasoek ez zioten utzi eta laster aldegin zuen handik.

Izurde gurasoek bazekiten zelakoa zen marrazoa eta ziur zeuden ahaleginduko zela izurde semetxoa berriro harrapatzen, horregatik erakutsi zioten nola defenditu.

Egunak joan eta egunak etorri, izurde semetxoa handia egin zen eta bere gurasoak agurtu ondoren itsasoko misterioak ikusteko asmoaz irten zen.

Txikitako inguruetara heldu zen eta, bidean, marrazoarekin egin zuen topo. Marrazoak hortzak erakutsiz egin zion eraso. Izurdeak buztankada bat eman zion, eta marrazoak, defenditzen bazekiela ikusi zuenean, laster aldegin zuen handik.

Aurrera jarraitu zuen bidean eta handik gutxira zerbait arraroa ikusi zuen. Harri baten ostean ezkutatu eta kontu haundiz begiratu zuen. Oso arraroa zen, zortzi anka zituen, bi begi eta itzelezkoa zen neurriz.

Izurdeak ez zekien zer edo nor zen, eta pentsatzen hasi zen. Ez zuen asmatzen eta, denbora galtzen ari zela pentsatuz, aurrera jarraitu zuen.

Bidean zihoala itzal ikaragarri bat ikusi zuen. Hura bai ezagutzen zuela! Hain handia izanik edozeinek ezagutuko zuen. Bere lagunik handiena zen, balea.

Balea poztu egin zen izurdea ikusterakoan, baina bazegoen zerbait kezkatzen zuena. Izurdeak zer zen galdetu zion eta baleak hauxe erantzun: "Han, gainean, itsasontzi bat dago jende pilo batekin. Persona horiek oso maltzurak dira, eta arnasa hartzen irtetzen banaiz arpoi handi bat botako didate". Azaldu zion baita ere pertsonak baleak hiltzen zituztela, gero heurak elikatzeko. Izurdeak kuriositatea sentitu zuen, ez bait zekien zer zen itsasontzi bat.

Baleak abisatu zion gora ez joateko. Izurdeak ez zion kasurik egin eta ur gainerantz egin zuen. Gizonek arpoia bota zioten, konturatu gabe izurdea zela.

Izurdea zergatia jakin gabe hil zen. Pertsonak hil zuten. Baina oraindikan bere izpiritua bizirik dago itsasoko ur sakonetan.

Iratxe Perez Barreña

7. mailako irabazlea

Sagrado Corazón – Nevers- Ikastetxea

ZUHAITZA

Ni, landare gaztea nintzenean, hemen ondoan daukadan kamino hau orain baino lasaiagoa zen. Tomen bizikleta eta Pabloren gurdia besterik ez ziren pasatzen. Baina egun baten etorri ziren gizon batzuk eta ..., hura zalaparta!

Bidea pixkatxo bat zabaldu eta asfaltatu egin dutela uste dut. Motorrak, autoak eta kamioiak pasatzen dira eta Tomek eta Pablok ez dakite nondik pasa hirira joateko. Horregatik, autobusa ipini dute honelako kasuetarako. Baina ez dit ardura. Urteetan zehar lagun asko egin ditut eta, orain, ni zuhaitz handi eta polit bat naiz, baina arazo bat daukat, ezin naiz mugitu.

Horregatik esan diot Tomen txakurrari, eta berak lagunak ekarri dizkit: sugandilak, hodeiak euriarekin, marigorringoak, elurra, txoriak, eta abar.

Denbora luzez, arratsaldeetan, Tomen txakurra etortzen zen nire enberrari pixa egitera. Lagun handiak egin ginen eta batzuetan nire gerizpean etzaten zen.

Egun batez nire ondoko zuhaitzak bota zituzten eta Tom etorri zen haien enborrak hartzera berauekin kutxa bat egiteko.

Baina, hau beldurra! Beste egun batetan, txakurra nire ondoan zegoen bitartean, gizon bat zetorrela ikusi nuen, aizkora batekin. Udaletxeko langilea zen, bere txapela eta uniformearekin. Oso lodia zen. Ni botatzera zetorren. Argiaren kableak jarri nahi zituzten inguru hartan. Eta nik ez nuen horretarako balio.

Laster ikusi zuen txakurrak gizon hura eta ia hainka egin zion. Txakurraren hortz zorrotzak ikusi zituenean gizona beldurtu egin zen, eta korrika aldegin zuen handik.

Baina, egun batzuetara, ni botatzera etorri zen berriro. Beste hiru gizonekin zetorren, denak uniformeaz jantzirik. Txakurra eta Tom han izan ziren baina ez zekiten zer egin. Hala ere, han zegoen hodeia niri laguntzeko prest. Honela, bapatean, hodeia zabaldu eta euri zaparrada izugarria hasi zen, tximista eta guztiz. Txakurrak gizoni hainka egin zien. Bildurtu egin ziren lau gizonok eta korrika aldegin zuten handik.

Geroztik baketan utzi naute. Ez da inor gehiago etorri ni botatzeko asmoz. Oso hazi naiz, indartsu nago eta lasai asko bizi naiz orain. Lagunak maite ditut, batez ere Tom. Hau bere kutxarekin etortzen da eta nire ondoan esertzen. Jolasten ibiltzen gara beti. Han ume asko sartzen dira egunero eta Tomek burusi bat ipini du barruan. Tom eta Pittu, bere txakurra, oso pozik eta lasai daude orain. Kutxagaz edozertara jolastu ahal dute. Oso alai gaude hirurok. Egun batzutan hodeia etortzen da eta Tom eta Pittu bere kutxan sartzen dira. Euria hasten da eta hauek oso bero daude burusiarekin. Badaukate

ere plastiko bat aurretik ipintzeko euri gogorra hasten denerako, baina gehienetan ez dute berau erabiltzen.

Txoriek ere badaukate beren lekutxua nire hostoetan. Elurra etortzean niri ez zaizkit hostoak jausten, horregatik daude beti pozik txoriak.

Beno, orain agur esango dizuet. Ondo pasa udazkena eta negua. Ni bero egongo naiz eta ...

Ane Castillo Aranburu

8. Mailako irabazlea

Maiztegi Herri Eskola

IZARREI BEGIRA

Kaixo lagunak: Ni, pertsonen buruan aurkitzen naizen "irudimen izakitxo" naiz. Badakit esan dudana ez duzuela ulertzen eta horrexegatik azalduko dizuet.

Pertsona batek ipuin bat idatzi behar duenean, gehienetan ez du jakiten nondik hasi eta ni, buru barruan, ideia ematen diodan izakitxo naiz. Ikusiko duzue, oso funtzio garrantzitsua betetzen dut eta, jakina, pertsona batek ni bezalakorik ez badu barnean ez da ipuinak egiteko gai izango.

Ezazue pentsa norbaiten barrutik alde egin dudala!, alderantziz izan bait da. Bai, bai!, berak bota nau. Nola?, ba begira, ni hainbeste kapilare, zelula, nerbio eta organoren artean erabat aspertzen nintzen, ez nuen inolako jostaketarik egiteko aukera. Bestalde, nire jabeak, sekula ez zidan aukerarik ematen ipuin bat egiteko. Horrela bada, aspertzeaz asperturik, alde egin dut, baina berak nahi zuelako, argi gera dadila.

Zihur nago, zuek, nire bizitza eta xehadura hauek entzutea baino nahiago duzuela istorio liluragarri bat, eta nik ere atseginagoa dudanez, kontatzen hasiko naiz:

"Zarautzen, 1.988.eko Uztailaren 25.ean gertatu zen. Maialen, hamabi urtetako neskatila polit eta alaia zen, lagun asko zituen eta oso gogoko zitzaizkion gaueko parrandak. Atzo, bere senideen ondoren, azkena izan zen ohera sartzen. Ez zen lokartzen eta arrazoi horregatik jeiki eta zeruko izarrei begira jarri zen. Izan ere, zerua oskarbi zegoen eta izarraturik.

Maialen, banan-banan, izar bakoitza aztertzen hasi eta harriturik gelditu zen zeharo. Lehendabizi ikerturikoaren barnean herrixka bat ikusi zuen. Bertako pertsonen artean bata bestearekiko gorroto handia zegoen, denak ziren etsai, haserrea eta bekaizkeria ziren nagusi. Aztertutako bigarrena oso izar ederra zen, bertako biztanleen artean begirunea zegoen, denak ziren lagun, alaitasuna eta zoriona nagusi zirelarik. Hirugarrenekoan ordea, jendeak ez zuen ezertarako denborarik, zoraturik bizi ziren. Laugarrenean gerra garaia zen, eta hildakoak ikusten ziren toki guztietatik. Eta azkenik, bostgarrenean, janaririk gabe, jantzirik gabe bizi zen jendea zegoen, umeak gosez hiltzen ziren eta bertako guztiak txiroak ziren.

Une batez, gure bizitza zein izarrekin parekatuko zuen pentsatzen jarri zen eta ez zuen jakin galderari erantzuten. Zaila egiten zitzaion. Gainera, oso berandu zen eta oheratzea izango zela onena erabaki zuen. Anka bat sartu orduko lozorroan zegoen.

Hurrengo goizean, goiz esnatu eta gauean gertaturikoa hausnartu zuen. Gure bizitza aldatu zitekeela eta beste era batetara bizi gintezkeela uste zuen Maialenek."

- Baina, hain erraza dela uste duzue? Nire eritziz, ez da dirudien bezain aise. Orain irakurtzen jarraitu, oraindik ez dela amaitu!

"Hurrengo gauean, aurreko egunean bezalaxe leihotik ortzera begira zegoela Maialen, izartxo bat hasi zitzaion hizketan: 'Kaixo, zuen bizitzaren berri ematera nator, nire ustetan ez zarete batere zoriontsuak, triste bizi zarete eta ez duzue inolako zorionik. Bizimodu hau aldatu beharko zenukete eta horrela denentzako izango zatekeen hobe'.

Maialen nahasturik aurkitzen zen, ez zuen gertatzen ari zitzaiona ongi ulertzen, baina hala ere, entzuten jarraitu zuen.

Handik lasterrera izarra arrastorik utzi gabe desagertu zen. Maialenek, erabat etsipendurik, bere nebari deitu zion, ea berak izarretan zerbait ikusten zuen galdetuz. Ferminen -bere neba- izar arruntak zirela esan eta segituan oheratu egin zen. Neskatala ordea, zihur zegoen berak ikusitakoa egia zela, bihotzaren erdi-erdian zerbait sentitzen bait zuen.

Geroztik, gauero, oheratu baino lehen bere izar laguntxoekin hitzegiten du eta herrixka bakoitzean hobeto bizi ahal izateko zer gauza aldatu beharko liratekeen esaten die. Horrela, handik gutxira, izar guztietan alaitasuna eta zoriona izan ziren nagusi".

- Ea lurrean ere denon aldetik zerbait jarriaz horrela gertatzen den. Jaramon egidazue, badakizue ni "IRUDIMENENKO IZAKITXOA" naizela eta.